

Indarkeriari buruzko erakunde memoriak berreraikitze eta biktimizazio prozesuen aurrean erreakzionatzeko ikaskuntzak diseinatzeko **metodologia gida**



Izaskun Sáez de la Fuente Aldama,
Galo Bilbao Alberdi, Xabier Riezu Arregui,
F. Javier Arellano Yanguas, Angela Bermudez Velez

Indarkeriari buruzko erakunde memoriak
berreraikitze eta biktimizazio prozesuen
aurrean erreakzionatzeko ikaskuntzak
diseinatze metodologia gida

Indarkeriari buruzko erakunde memoriak berreraikitze eta biktimizazio prozesuen aurrean erreakzionatzeko ikaskuntzak diseinatzeko metodologia gida

Izaskun Sáez de la Fuente Aldama
Galo Bilbao Alberdi
Xabier Riezu Arregui
F. Javier Arellano Yanguas
Angela Bermudez Velez

2018
Deustuko Unibertsitatea

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak
1 posta-kutxa - 48080 Bilbao
Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-1325-037-3

Lege gordailua: BI - 833-2019

Aurkibidea

Sarrera	9
I. Argitze lanak: kontzeptuak eta zereginaren irismena	11
a) ¿Erakunde memoria? Erakundeak erakundeari buruz egindako memoria	11
b) Memoria bat? Memoria pluralen kontakizun partekatua	11
c) Irizpideak? Memoria egiazkoa eta bidezkoa	12
d) Zergatik mugitu iragana? Memoria eguneratua	12
e) Biktimen parte hartzea? Beren ikuspegia geure egitea	12
f) Zein da biktima? Giza eskubideen urraketaren bat sufritu duena	13
g) Zergatik indarkeria terroristaren biktimak? Nahikoa arrazoi dago	14
h) Adiskidetzea? Prozesuak errazten du, baina ez da helburu behinena	15
II. Lantaldea osatzea	17
III. Metodologia, urratsez urrats	19
III.1. Biktimizazio prozesuak identifikatzea eta dokumentatzea	19
III.1.1. Periodizatzea: banakako oroitzapenak eta oroitzapen kolektiboak gogora- tzen edo antolatzen lagundu dezaketen testuinguruko ezaugarri nagusiak. .	19
III.1.2. Biktimizazio kasuak dokumentatzea	24
Ahozko iturriak tratatzeko printzipio etikoak	28
Ikertzailearen konfidentziasun konpromisoa	29
Informatzailearen baimen informatua	30
Elkarrizketak egiteko gidoiak. Hainbat galdera gako	31
III.2. Erakundearen jarduna aztertzea eta balioestea	32
III.3. Etorkizuneko ikaskuntzak	33
III.4. Txostena idaztea	35
Bibliografiako iradokizun batzuk	37

Sarrera

Txosten honek metodologia gida bat eskaintzen du, erakunde memoriei buruzko proiektu bati ekin nahi dioten askotariko gizarte erakunde motentzat. Prozesu horrek lagundu beharko lieke erakunde horiei indarkeria terroristaren aurrean edo beren inguruan gertatzen diren beste biktimizazio prozesu batzuen aurrean izan duten jarduna eta dinamikak ulertzen. Metodologia honen oinarriak eta tresnak testatu egin ditugu, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan sei hezkuntza eta gizarte entitatetan aplikatu baititugu. Esperientzia horretatik hainbat ikaskuntza atera eta gidaren behin betiko formulazioan kontuan hartu ditugu.

Gida honetarako, lehenengo, kontzeptuak argitzeko atal labur baina trinko bat prestatu dugu. Horrelako proiektu baten esanahia eta irismena zehaztu nahi izan ditugu bertan. Erakundearen memoria egin nahi dugu eta indarkeria terroristaren aurrean izan dituen adierazpenak, jarrerak eta jarduerak jaso, jakinik erakundeko kideak askotarikoak direla. Memoria horren gutxieneko irizpideak egia eta justizia izango dira. Eta modu kritikoan ebaluatuko dugu, biktimen ikuspegia ardatz hartuta, erakunde kulturak gaurko eta etorkizuneko biktimizazio modu berriei —esate baterako, genero indarkeriari, abusuari, homofobiari eta xenofobiari— aurre egiteko dituen indar gune eta ahultasun nagusiak agerian uzteko. Biktimak erdi-erdian jartzeak eta gure diagnostikoaren oinarritzat hartzeak erakusten du horrelako eskema bat baliagarria izan daitekeela beste memoria prozesu batzuetarako ere, nahiz eta prozesu horiek indarkeria terroristarekin loturarik ez izan.

Bigarren, proiektua garatzeko metodologiaren faseak aztertu ditugu. Lantaldea egoki osatzeko eta erakundeak dagokion aitortpena emateko funtsezko irizpideetako batzuk adierazi ondoren, informazio dokumentala eta ahozkoa biltzeko alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu. Lekukotzei dagokienez, gidak berariaz azpimarratzen ditu oinarri etikoak, bereziki, konfidentzialtasun konpromisoaren eta adostasun informatuaren in-

guruan. Aurrerago, hainbat gako eskaintzen dira eskuratutako informazioa aztertzeo —horrek metodologiaren atala oinarri kontzeptualekin lotzeko aukera ematen du— eta ikaskuntzak diseinatzeko. Hain zuzen ere, atal hau ezinbestekoa da iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko ibilbidea burutzeko.

Gidak, gainera, txostena egituratzeko proposamen bat eta gomendio bibliografikoak eskaintzen ditu. Bibliografiak alderdi kontzeptualetan sakontzeko aukera ematen du eta testuinguruari lotutako datuak eskaintzen ditu, argigarri izan daitezkeenak etapa historikoak definitzeko eta biktimizazio kasuak hautatzeko, bai gizarte erakundeari modu zuzenagoan eragin diotenak eta bai beste batzuk, zuzenean eragin ez badiote ere, gizarte osoarentzat esanguratsuak izan direnak eta, hortaz, erakundeen erreakzioetan islatu direnak.

Dokumentu honen helburua da proiektua aurrera eramatea erabakitzen duen erakunde bakoitzaren hobekuntzarako dinamikak elikatzea. Horregatik da garrantzitsua proiektua eta bere emaitzak erakunde osoan sozializatzea. Ez da erakundetik kanpora inolako jarduerarik egitea aurreikusten, baina erakunde bakoitzak material honekin bere misioari gehien lagunduko diona egiteko aukera izango du.

I.

Argitze lanak: kontzeptuak eta zereginaren irismena

a) **Erakunde memoria? Erakundeak erakundeari buruz egindako memoria**

Memoria kolektiboak edo sozialak izan badiren edo trinkoak diren eztabaidatzen hasi gabe, inolako arazorik gabe onar dezakegu erakundeek (erakundeetako kide diren pertsonen bidez) memoria bat eraiki dezaketela erakundearen bertan gertatu izan denaren eta erakundeak egin duenaren (edo egin ez duenaren) inguruan.

Ez da gertatutakoaren inguruko memoria ofizial bat izango, baizik eta gertatutakoaren eta egindakoaren inguruko erakunde memoria berreskuratzeko prozesu bat, gogoetan eta elkarrizketan oinarritutakoa. Prozesu horretan erakundeko askotariko kideek har dezakete parte.

b) **Memoria bat? Memoria pluralen kontakizun partekatua**

Nagusiki, taldeko memoria izango da, pertsona parte hartzaileen banakako memorieta-rik abiatuta osatuko dena. Horrenbestez, ez da memoria bakarra eta monolitikoa, baizik eta kontakizun partekatua, banakako ekarpenek osatua, ekarpen askotarikoek eta anitzek. Geure egiten ditugun zatiak elkarren kontrajarriak ere izan daitezke, kontrako gertaerak ere jasotzen baitituzte.

c) Irizpideak? Memoria egiazkoa eta bidezkoa

Banakako memoria zatiek, denok onartzeko, oinarritzko bi irizpide etiko bete behar dituzte: egia leial izatea (alegia, benetan gertatu den zerbait gogoratzea) eta justizia bilatzea (ez dira erabili behar gertatu den bidegabekeria legitimatzeko).

Indarkeriazko gertakaria jada ezin da aldatu eta egia enpirikoa errespetatuko duen oroimena eskatzen du, gertatutakoa faltsutuko ez duena (*egia historikoa*). Gertakari bakoitza modu subjektiboan bizi izan da —modu anitzean eta aldagarrian, ezinbestean—, baina egia morala adierazi behar du, egia enpirikoaren gainean erantzukizun etikoaren esleipen bidezkoa. Hala ere, komeni da kontuan hartzea norberaren memoriak selektiboak eta alboratuak direla (*egia psikologikoa*), beraz, komeni da gertatutakoaren egia eta gertatutakoaren esanahiaren edo pertsonen motibazio eta bizipenen inguruko interpretazioa bereiztea.

Justiziaren lehen adierazpide horren ondoan beste batzuk ere aipatu behar dira: gogoratu behar dena ez ahanztea; memoria norberaren interesen alde ez desitxuratzea; gertatutakoaren zati bat baino ez gogoratzea, biktima batzuk —«norberarenak»— besteen aurrean goretsiz... eta, batez ere, memoria ez erabiltzea iraganeko eskubideen urraketak justifikatzeko baizik eta gertatutako injustiziei zilegitasuna kentzeko, horrela, gaur egungo eta etorkizuneko indarkeria justifikatzeari biderik ez irekitzeko.

d) Zergatik mugitu iragana? Memoria eguneratua

Memoria eginez, justizia egiten zaie (neurri batean, bederen) iraganeko biktimei eta horrek etorkizunean injustizia berberak errepikatzea saihesteko. Baina, batez ere, kasu honetan, iraganean biktima batzuekin ongi egindako edo gaizki egindako gauzez ikasi nahi dugu, gaur egun gertatzen ari diren bidegabekeriak behar bezala identifikatzeko, gaur egungo biktimei aitortzea egiteko (hau da, identifikatzeko eta erreparatzeko) eta, ahal den neurriak, biktimak egotea eragozteko.

Ez dugu iraganean ainguratuta geldituko den memoria bat nahi, ez dugu mendekua helburu duen memoria bat nahi. Aitzitik, memoria eguneratu bat nahi dugu, iraganari justizia egingo diona eta orainaldiko injustizia edo bidegabekeria saihestuko duena.

e) Biktimen parte hartzea? Beren ikuspegia geure egitea

Ziur aski, gaizkiaren eta injustiziaren arloan, autoritate handiena biktimek dute, haiek erakusten baitigute, modurik gordinenean eta ukaezinean, gaizkia eta, haren aurrez aurre, ongia. Horregatik, kontuan hartu nahi ditugu eta, gainera, beren ikuspegia, beren «begirada» geure eginda landu nahi dugu diskurtsorako eta praxirako orientazio etikoa,

beti beren interpelazioa aitortuz, baita hilak izan denean ere, eta beren ahotsa entzunez, bizirik iraun badute. Biktima, orduan, aktibo izatera igarotzen da eta guri harkorrak izatea dagokigu.

Biktimak giza eskubideen abstrakzioaren edo ideologizazioaren kontrako antidotoa dira. Giza eskubideen urraketak hezurmamitzen dituzte, injustizia jakin bat islatzen dute eta, horregatik, erreferentzia saihestezina dira giza eskubideen ibilbide historikoa egite-rakoan. Errealitatearen zati bat erakusten dute eta, haiek gabe, errealitatea osagabea izango litzateke. Errealitatea ez bada berdina biktimekin edo biktimarik gabe, biktimen begirada, berariazkoa, errealitatearen parte da eta kontuan hartu behar da, egia lortzeko baldintza bihurtzen da horrela. Ikuspegi hori geure egitea, bere horretan, injustizia aitortzeko ariketa bat da, osagabea baina erreala, eta, aldi berean, justizia keinu bat. Biktimaren protagonismoa eta jarduera berreskuratzea esan nahi du. Biktimaren lekukotzak biktimari berari aukera ematen dio galdu duen askatasuna berreskuratzeke (ez baitu biktima izatea aukeratu, biktima izan da bere borondatearen kontra), bere historiaren egile bihurtzen delako. Biktimen «identitate narratibo» bati buruz hitz egin dezakegu, kontatzen duten horren bidez beren izaera bera adierazten baitute. Hain zuzen ere, biktima askoren sufrimenduak ez du mendekua eskatzen, baizik eta narrazioa, kontakizuna, besteok entzuteko prest baldin bagaude.

f) Zein da biktima? Giza eskubideen urraketaren bat sufritu duena

Biktima, etikaren ikuspuntutik, giza ekintzaren baten eraginez eta modu bidegabean sufrimendu bat bizi izan duen pertsona da. Biktima orori duintasunean kalte egin zaio, birtarteko hustzat erabili izan baita helburu jakin bat lortzeko, bai beste pertsonaren baten ekintza kontziente eta boluntario baten bidez kalte egin diolako eta bai inork kasurik egin ez diolako, harrera abegitsu bat egin behar zitzaionean.

Horrenbestez, «biktima» kategoriaren ezaugarri nagusietako bat, bere oinarrizko ezaugarri bereizgarria, errugabetasuna da, ez baitu sufritu duen kaltea merezi, giza eskubidean urratu zaizkionean. Ez du esan nahi akatsik gabeko izakia denik (ez baita), ezta gatazkan inplikazioaren bat ez duenik ere (inplikaturata baitago, nahita edo nahi gabe). Baina, hori guztia jakinik ere, egin duena eginik ere (ezer, gutxi edo asko, neutroa, ona, erdizkakoa edo txarra), edozein izanik ere, edozer izanik ere, ez da bidezkoa jaso duen tratua, tratu horrek bere funtsezko giza eskubideak urratzea ekarri duelako, bere duintasun ukiezin hori urratzea. Inork, ezta biktimarioak ere, ez du merezi bere funtsezko eskubideak urratzea. Gizakion duintasuna ezin bortxatuzkoa da eta ez dago subjektuaren ekintzaren mende; ezin izango da urratu egindako krimenaren edo izugarrikeriaren aitzakian. Hori horrela bada, esan dezakegu biktima oro biktima errugabea dela, baita eraso jasan duen hori biktimarioa denean ere: kasu horretan, prozesu judizial bat merezi izango luke, berme guztiekin, eta, beharbada, zigor bat —bidezkoa, proportzionatua eta, ahal den neurrian, birgaitzailea—, baina inola ere ez bere funtsezko eskubideak urratzea.

Pasibotasunak, bestalde, esan nahi du ez dugula guk erabakitzen biktima izatea, baizik eta guk nahi izan gabe ere bihurtzen garela biktima. Biktimarioak gure autonomia zapaltzen du: harengatik sufritzen dugunean, hura sufritzen ari gara. Agerikoak dira bizipen horrek dakartzan zailtasun ugariak: lehenengo, pasibotasun horrek dakar biktima moralak egotea eta haientzat justizia eskatu behar da; gainera, hilketan, pasibotasuna erabatekoa eta behin betikoa da; beste alde batetik, bizirik irauten duenari kosta egiten zaio pasiboarekin identifikatzea —biktima izatearekin identifikatzea—, baina, neurri batean, erreakzio aktibo bat ere izan dezake —asko kostata ere—: bizirik iraun du, sufritutako indarkeriaren aurrean erresistentzia erakutsi du. Biktima bakoitzak du hori modurik egokienean zehazteko eskubidea. Biktimarioa definitzen duten ezaugarriak, ordea, erruduntasuna eta ekintza dira. Beraz, asimetria moral garbi bat dago biktimaren eta biktimarioaren artean, eta asimetria horrek garrantzi handia du justiziaz, barkamenaz edo adiskidetzeaz ari garenean, hiru kontzeptu horiek ez baitute esan nahi zigorgabetasuna, ahanzteo edo preskribatzea: kalteak iraun egiten du, kitatzen ez den bitartean.

Azken batean, biktima ez da, *per se*, inolako aktiboren jabea, ez du merezimendu berezirik erakutsi behar; biktimarioak du zorra berarekin eta, hedapenez, gizartearekin, eta zor hori kitatu egin behar da, zigorgabetasunak tokirik izan ez dezan. Biktimaren errugabetasuna biktimizazio ekintzarekin lotzen da, baina horrekin bakarrik. Gainerakoan, biktima beste pertsonak bezalakoa da. Biktima izatea bidegabeko indarkeria ekintza baten subjektu paziente izateak ematen dio.

Biktima izatea horrela ulertzen badugu, biktima morala izatea, alegia, orduan biktima mota guztiak berdinak izango dira: genero indarkeriaren biktimak, egiturazko bidegabekeriarenak, terrorismoarenak, xenofobiarenak, etab. Horrek eragozten du biktimen artean hierarkia bat sortzea, sarritan egiten den bezala, beldurrean, kutsadura ideologikoan edo hurbiltasun pertsonaletan oinarrituta. Hala ere, garrantzitsua da biktimek jasan izan dituzten indarkeria moduak edo motak gogoan izatea, aukera ematen baitigute biktima guztietan arreta jartzeko eta biktima mota desberdinen artean egon daitezkeen loturak aurkitzeko. Aldi berean, biktima mota bakoitzaren aurrean (eta bakoitzarekin) zehazki zer egin behar den erakusten digute.

g) Zergatik indarkeria terroristaren biktimak? Nahikoa arrazoi dago

Gure ingurunean, biktima mota asko izan dira eta biktima mota asko ditugu, ekintza puntualek, estrategiek eta baita indarkeriazko egitura bidegabeek eragindakoak. Zergatik aukeratu indarkeria terroristaren memoria? Hainbat arrazoiengatik: azken berrogeita hamar urteetan (1960tik 2011ra, modu ofizialean mugatzen denaren arabera), gure artean esangura berezia izan du eta denok jasan dugu haren eragina; hori horrela izanik ere, orain dela gutxi arte ez da errealitate hori lantzen hasi; errealitate hori lantzeak biktimei justizia egitea esan nahi du, nahiz eta partziala izan; eta gure inguruan indarkeria mota hau desagertzeak gaia lantzeko baldintzak asko hobetzen ditu. Horregatik guzti-gatik, aukera paregabea dugu iraganean gertatutakoa eta egindakoa aztertuz, orainaldi-

rako eta etorkizunerako balio handiko ikaskuntzak atera ahal izateko, gaur egun bizi dituzun beste indarkeria mota batzuei aurre egiteko.

h) **Adiskidetzea? Prozesuak errazten du, baina ez da helburu behinena**

Ez dugu kontrajarritako memoriak azaltzeko, haien inguruan hitz egiteko eta onbidertzeko ariketa bat proposatzen, barkamena eskatzeko edo eskaintzeko keinu eta ekintzak ekarriko dituen eta, are gutxiago, pertsonen arteko edo erakundeko adiskidetzea ekarriko duena. Ez da hori helburua eta, gainera, hori egiteko prozesua beste modu batera landu beharko genuke, beste metodologia bat erabiliz. Hala ere, gerta liteke proposatutako planteamenduak horrelako garapenak ekartzea, programatutako lanarekin batera. Adiskidetze mekanismoek prozesu honetan izan dezakete jatorria eta hasierako motibazioa, baina ez dira prozesuaren zati. Hala, esan dezakegu memoriari lotutako ariketa honen helburua iraganeko zauriak ixtea ez bada ere, ziur aski hori ahalbidetuko duela.

II.

Lantaldea osatzea

Metodologiaren garapena lantzen hasi aurretik, komeni da azpimarratzea garrantzitsua dela erakundearen barruan proiektuaren *lantaldea* osatuko duten pertsonak egoki hautatzea. Horregatik, gutxienez lau galdera erantzun nahi ditugu:

- *Nork aukeratzen du?* Erakundeko zuzendaritza taldeak aukeratu behar du lantaldea: lantaldeko kide izan daitekeen bakoitzari banakako gonbidapena egin behar dio, proiektua zertan den zehaztasunez azalduz (proiektuaren helburuak, erabiliko den metodologia, zereginaren benetako dimentsioa eta, hortaz, beharko diren orduak, etab.). Gonbidapena jasotzen duen pertsonak erabateko askatasuna eduki behar du proiektuan parte hartzea edo ez hartzea erabakitzeko. Alegia, parte hartzea borondatezkoa izango da. Bestalde, zuzendaritza taldeak zentsura erabiltzea saihestu behar du eta, beraz, prest egon behar du jarrera kritikoagoak dituztelako gustuko ez dituen pertsonak ere proiektuan sartzeko.
- *Zenbat pertsona hautatuko dira?* Lantaldeak sei eta zortzi kide artekoak izatea gomendatzen dugu. Kide horiek prozesu osoan parte hartzeko konpromisoa hartuko dute.
- *Nola hautatzen dira (irizpideak)?* Parekotasuna bilatuko da, gutxi gorabehera, generoari eta adinari begiratuta (gazteak eta helduak); askotariko sentsibilitateak (horrek ez du esan nahi Euskadin ditugun aukera politiko guztiak nahitaez bermatu behar direnik); alderdi aurreko ikuspegi politikoak, indarkeria terroristaren deslegitimazio etikoa, politikoa eta soziala helburu duena; erakundean askotariko ibilbideak izan dituzten pertsonak (luzeagoak eta laburragoak, kudeaketa ardurak izan dituztenak eta ardurarik izan ez dutenak); indarkeriaren urterik gogorrenetako protagonista izan ziren pertsonen parte hartzea; izendapena onartu nahi izatea eta agindutako zeregina aurrera eramateko borondatea, etab. Kontua ez da aipatutako irizpide horiek guztiak banan-banan zorrotz betetzea, baizik eta hautatutako taldean askotariko esperientziak ordezkaturik egotea.

— *Zein aitorpen?* Erakundeak proiektuarekin duen konpromisoak ekarri behar du taldekideei lanean aurrera egiteko aginpidea ematea eta proiekturako orduak esleitzea. Hala egiten ez bada, zaila izango da proiektua egoki burutzeko gutxieneko bermeak edukitzea. Hau da, ezin da horrelako gai bat landu erakundeak agindu zehatz bat ematen ez badu eta proiektuari denbora eskaintzeko benetako aukerak ematen ez baditu. Boluntarismo hutsa kaltegarria da planteatutako helburuak lortzeko, bai informazioa biltzeko orduan (biktimizazio kasuak hautatzea eta elkarrizketak egitea) eta bai informazio horren analisi kritikoa egiteko orduan. Hain zuzen ere, dagoeneko proiektuak garatu dituzten erakundeetako memoria prozesuetan, zailtasun handietako bat izan da hori.

Erakundeetan proiektua aurrera ateratzeko erantzukizuna talde dinamizatzaile osoak badu ere, orain arteko esperientziek erakusten digute komeni dela koordinatzaile bat izendatzea. Koordinatzaile horren egitekoa izango da taldearen lana animatzea eta koordinatzea eta zuzendaritza taldearekin komunikazioa bermatzea. Prozesua errazteko, erabilgarria izan daiteke lagun egingo duen pertsona bat ere egotea. Erakundeaz kanpoko pertsona bat izango da, baina proiektu mota hauen oinarri kontzeptualak eta metodologikoak ongi ezagutzen dituen. Orain arte egin ditugun prozesuetan, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroko kideek egin dute lan hori. Egin dugun testak erakutsi digu, halaber, gaur egun erakundeetan zuzendaritzako arduraren bat duen norbait taldean egoteak proiektuari erakunde babesa ematen diola, beti ere adierazpen eta analisi askatasuna mugatzen ez badu.

Metodologia proposamen hau dagoeneko erabili duten erakundeetako esperientziek agerian utzi duten bezala, lehenengo lan saioak erabil daitezke taldean elkarrekiko konfiantza giroa sortzeko, batez ere taldekideen abiapuntuak dibergenteak badira (*elkarriketa zintzoa eta entzuteko gaitasuna*). Horretarako, saioetan hainbat galderaren inguruan hitz egin daiteke: zergatik egon nahi dut talde honetan? zein baliok eramaten naute taldean parte hartzera? zein ekarpen egin nahi dut? zerk kezkatzen nau parte hartzeari lotuta? zer behar dugu lasai eta konfiantzan sentitzeko? nolakoa izango da taldearen funtzionatzeko modua? Ikerketa «objektibo» bat egin nahi bada ere —jakinik azpian erabateko subjektibotasuna dagoela—, ez dugu ahortzi behar taldean hunkiberatasun uneak ere egon daitezkeela eta horiek modu egokian kudeatzen jakin behar dugula.

tuzke, egongo balira, baita gizartean gertatu zirenak eta erakunde berariaz interpelatu zutenak ere. Badakigu oso zaila izan daitekeela lehenengo garaietako lekukotasunak lortzea.

1. ETAPA. Diktadura (1960ko hamarkadaren hasieratik Francoren heriotza eta trantsizio politikoaren lehenengo urratsetara arte)

- Euskadi ta Askatasuna (ETA) 1959ko uztailaren 31n sortu zen eta 1936ko eusko gudariak beren herria askatzeko egin zuten erresistentziarekin jarraituko zuela aldarrikatu zuen orduan.
- Francoren errejimenaren urteetan, armak erabiltzea legitimotzat ikustea bilatzen du, azpimarratuz indarkeria beharrezkoa dela, Estatuaren egiturazko indarkeriari erantzuteko (*ekintza-errepresioa-ekintza espiralaren estrategia*).
- 1960ko hamarkada horretan, gainera, ohikoak dira ETaren barnean sektore abertzaileen eta langileen aldekoago diren korronteen arteko borrokak eta ondoz ondoko zatiketak.
- Indarkeria politikoaren hasierak atzera bueltarik gabeko puntu batera eramaten gaitu. ETaren lehenengo atentatuak 1959ko abenduan gertatu ziren. Hiru bomba jarri zituen: bata, Gasteizen; bestea, Bilbon; eta, hirugarrena, Santanderren. Ez dago adostasunik Begoña Urroz Ibarrola haurraren heriotza nork eragin zuen esaterakoan. Neskatoa 1960an hil zen, Donostiako tren geltoki batean bomba batek eztanda egin zuenean. Nolanahi ere, nahita eragindako lehenengo biktimak zortzi urte geroago izan ziren, Txabi Etxebarrieta ETako kideak José Pardines guardia zibila hil zuenean. Ordu gutxiren buruan, Guardia Zibilak Etxebarrieta hil zuen.
- Erreakzio gisa, ETak Melitón Manzanás hil zuen, Gipuzkoako Brigada Politiko Sozialeko burua. Gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen eta ETak *ekintza-errepresioa-ekintza* espiralaren inguruan planteatutako tesia zuen agerian gelditu zen gizartean. Bestalde, ETak hainbat lapurreta egin zituen banketxeetan eta erasoak eta bahiketak industria eta finantza oligarkiaren kontra, erakusteko «borroka armatuaren» eta «masa borrokaren» arteko erlazioa garrantzitsua zela. Baina, aldi berean, eta gero eta gehiago, baliabide ekonomikoak eskuratzeko erabiltzen zituen ekintza horiek.
- 1970ean, Burgosko Epaiketa izan zen, Manzanásen heriotzaren ondoren, ETako militanteen kontra irekitako prozesu sumarisimoa. Auzitegi Militarrak heriotza zigorrak jarri zituen eta erakundeko hamar militante eta jarraitzailek —horien artean, bi apaizek— 700 urtetik gorako zigorrak jaso zituzten. Hainbat esparrutatik jasotako presio politikoen eraginez, Francoren errejimenak, urtearen amaiera, dekretu bat iragarri zuen, heriotza zigorrak ordezteko. ETA indartuta atera zen prozesu horretatik, diktaduraren gaineko garaipen bat lortu zuelako, euskal herritarren laguntzaz eta Espainiako gainerako herrialdeetako Francoren oposizioaren elkartasunaz. Horrek aktibista kopurua biderkatu zuen.
- 1973an, ETak Carrero Blanco hil zuen, Espainiako Gobernuko presidentea eta diktadorearen oinordekotzat hartzen zen. Frankismoak Franco gabe jarraitzea saihestu nahi zuen horrela eta, gainera, erakundeko hainbat militantek jasan zituzten exekuzioak eten, ihes ahalegina simulatuz («ihesen legea»).

— 1975ean, Franco hil zen urtean, ETA militarren eta ETA politiko militarren arteko haustura argia zen. Aurrerago, jarrera kontrajarriak hartuko dituzte trantsizio politikoaren, Konstituzioa onartzearen eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat Autonomia Estatutua negoziatzearen aurrean. Miliek abstentzioaren alde egin zuten, arrazoituz Konstituzioa, Espainiakoa zenez, ez zitzaie axola. Polimiliek argi erakutsi zuten Konstituzioaren kontra zeudela eta uste zuten EZecko botoak maniobra marjinak zabaldu zitzaie autonomia estatutu nazional bat negoziatzerakoan. Gernikako Estatutuak polimilien babesaren eta milien erabateko kontrakotasuna, uste baitzuten deszentralizazio neurri bat besterik ez zela, autodeterminazio eskubidea ukatzen zuena, Nafarroa bazterean uzten zuena, euskara eta gaztelania parrakatu zituen, Espainiako segurtasun indarrak lurraldean jarraitzea bermatzen zuena eta langileen interesen kontra zihoana.

2. ETAPA. «Beruneko urteak» (1970eko hamarkadaren amaieratik 1990eko hamarkadaren hasierara arte).

- Biktimak modu esponontzian biderkatu ziren. Gehienak Estatuko Segurtasun Indarretako eta Kidegoetako kideak ziren gehienak (guardia zibilak, polizia nazionalak, militarrek...). Horiei gehitu behar zaizkie estortsioa jasan duten enpresaburuak eta ETAK eta bere inguruak droga trafikoen aritzeaz akusatutako herritarrak.
- Etapa honetan, Estatu terrorismoak ere eragin zituen biktimak. ETAREN kontrako *gera zikina* deitutakoari lotuta: Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista), Batallón Vasco Español eta, batez ere, Grupos Antiterroristas de Liberación-Askapenerako Talde Antiterroristak (GAL).
- 1980ko hamarkadaren hasieran, euskal herritarrak kalera ateratzen hasi ziren, terrorismo ekintzen aurrean protesta egitera: José María Ryan Lemoizeko ingeniariaren hilketak, Joseba Arregi ETAKo militantearena Guardia Zibilaren egoitzan, Martín Barrios farmaziako kapitainarena, eta Enrique Casas alderdi sozialistako senatariarena. Nafarroan, 1980. urtean, Javier Uranga Diario de Navarrako zuzendariaren kontrako atentatuaren ostean, Foru Erkidegoak beruneko urteetan ETAREN kontrako lehenengo mobilizazioa bizi izan zuen: kalera 50.000 herritar inguru atera ziren orduan.
- 1981ean, Terrorismoaren Biktimen Elkarteak sortu zen (AVT-Asociación de Víctimas del Terrorismo), paradoxa badirudi ere, Espainia osoan ezarriko zena, Euskadin izan ezik. Elkarteak ez du helburu agenda politikoetan zuzenean eragitea: laguntza psikologikoa, laguntza ekonomikoa, defentsa juridikoa eta terroristei segitzeko eta eraildako pertsonen senitartekoei eta zaurituei laguntzeko legeak egiterakoan eragitea dira haren helburu nagusiak. Hortaz, urte haietan, biktimak subjektu pasiboak dira, arreta eta laguntza jakin batzuen hartzaileak.
- 1982an behin betiko desagertu zen ETA politiko militarra. Erakunde horretako kide batzuk gizartera itzuli ziren, birgizarteratze prozesuei esker. Gainerakoak, milien multzora batu ziren eta, orduz gozotik, horixe izango da ETA bakarra.
- 1980ko hamarkadaren erdialdean, indarkeriaren kontrako lehenengo elkarteak sortu ziren: Cristina Cuestak Denon Artean sortu zuen (Paz entre todos). Cristinaren aita, Enrique Cuesta, Telefonicaren Donostiako ordezkaria zen eta Komando

Autonomo Antikapitalistek hil zuten 1982an. Bestalde, Itaka kolektiboa, Bilboko Eskolapioen ikastetxeari lotutakoa, bakearen aldeko «gesto» edo keinuak egiten hasi zen, 1985ean. Hamarkada horren bukaera aldera, ekimen hori formalizatu eta Gesto por la Paz-Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea sortu zen.

- Giza Eskubideen Aldeko elkarteak, 1987ko hasieran, kontzientziazio kanpaina bat egin zuen, *Contra el silencio/Isiltasunaren kontra* goiburuarekin, Maria Dolores González Katarainen (Yoyesen) hilketa gogoratuz. Yoyes Ordizian hil zuten, seme txikiaren aurrean. ETA militarrek bere gain hartu zuen Yoyesen hilketa: ETako buruzagi ohiak urteak zeramatzan erakundetik aldentuta. Hilketa horrekin, «damutuei» zer gerta dakiekeen erakutsi nahi izan zuen, ETA politiko militarrek bere burua desegin zuenean abian jarri zen banakako birgizarteratze politikaren garaian.
- Hiperkorreko (Bartzelona) eta Zaragozako Guardia Zibilaren Komandantziaren kontrako sarraskien ondotik, Madrilgo Ituna eta Ajuria Eneko Ituna sinatu ziren, indarkeriaren kontra egiteko.
- Etapa horretan, ETako presioen dispertsioa erakundetu zen eta espetxe politikaren ardatz bihurtuko. Bestalde, porrot egin zuten Gobernu sozialistaren eta talde terroristaren arteko «Aljerreko negoziazioek» (1989).

3. ETAPA. Sufrimendua sozializatzea (1990eko hamarkadaren erdialdetik 2000ko hamarkadaren lehenengo erdira arte).

- 1990eko hamarkadaren hasieran, Fabio Moreno haurra hil zuen ETAK eta erakundearen kupula terrorista atxilotu zuten Bidarten (1992). Garai hartan, bere burua ezker abertzale izendatzen duen sektoretik, Elkarrri sortu zen, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko mugimendua.
- Sufrimendua sozializatzeo dinamikaren barruan, *kale borrokako* indarkeria ekintzak ugaritu ziren, baita jazarpen eta beldurrarazte indarkeriari lotutako ekintzak ere, atentatuen lehentasunezko helburutzat hartu baitzituen ETAK, ordura arteko ez gainera, alderdi ez abertzaleetako kargu publikoak, kazetariak, irakasleak eta epaileak. Garai horretan, inflexio puntu bat izango da ETAK, 1995ean, Gregorio Ordoñez hiltzea —Ordoñez Alderdi Popularreko Gipuzkoako burua zen, Eusko Legebiltzarreko kidea eta Donostiako Udaleko alkateordea—.
- Julio Iglesias Zamora Ikusi enpresako ingeniariaren bahiketa luzeak (1993) lazo urdina sortzea ekarri zuen eta Gesto por la Pazek bahiketak iraun zuen bitartean astero antolatu zituen mobilizazioak, enpresako lantaldearen inplikazio aktiboarekin. José María Aldayaren bahiketak haustura handia ekarri zuen kaleetara, bahituaren askatasuna eskatzeko manifestazio baketsuen parez pare, «Euskal Herria askatu» lelopean erradikalen kontramanifestazioak antolatzen baitziren.
- Giro horretan gertatu ziren José Antonio Ortega Lara eta Cosme Delclauxen bahiketa luzeak (1996-1997) eta Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta hilketa. Azken gertakari horrek «Ermuko espirituak» zabaldu zuen: kaleetan manifestazioak izan ziren, Gestok antolatutako keinuez gainera. Ermuko espirituaren inguruan sortu ziren herritarren plataformek behin eta berriz azpimarratu zuten lotura estua zegoela indarkeriaren eta politikaren artean, izan ere, haien iritziz, abertzaleen helburuek,

ezinbestean, bitarteko terroristak eskatzen zituzten, eta alderdi politikoen batasuna ez zen irtenbiderik egokiena, batasun horren emaitzak bidegabeak izan baitzitezkeen biktimentzat.

- Lizarrako akordioak, abertzaleen eta Ezker Batuaren artean lortutakoak, 1998ko su etena erraztu zuen. Su eten hori eten zenean, jarduera terrorista biziki gogortu zen eta abertzale ez diren alderdietako kideen, irakasleen, kazetarien eta epaileen kontrako erasoak handitu egin ziren. Gesto por la Pazek *jazarpen indarkeria* deitu zion fenomeno horri. Garai berean sinatu zuten PPK eta PSOEk Terrorismoaren kontrako Ituna eta Alderdien Legearen erreforma. Erreforma horrek bidea erraztu zuen ENAM-Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua deitutakoa sortzen joan zen hauteskunde markak legez kanpo uzteko. Egoera horrek desadostasun sakonak sortu zituen euskal gizartean.
- Urte horietan, biktimak presentzia publikoa izatean hasi ziren, kolektibo gisa. Bi eskaera nagusi egin zituzten: beren memoria erabakigarria izatea Euskadiren berronratze etikoan eta indarkeria erabili zutenek abantaila politikorik ez lortzea. Bestek beste, Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Kolektiboa sortu zen (COVITE, 1998), eta Gregorio Ordoñez, Miguel Ángel Blanco eta Fernando Buesa Fundazioak.

4. ETAPA. Indarkeria zikloaren amaierarako bidean (2005-2011)

- José Luis Zapatero PSOEko hautagaia Espainiako Gobernuko buru izendatuta, ziklo aldaketa bati ekin zion. Diputatuen Kongresuak ebazpen bat onartu zuen eta alderdi guztiek, Alderdi Popularrak izan ezik, baimena ematen zioten Gobernuari ETArekin hitz egiteko, beti ere argi utzita indarkeriak ez duela prezio politikorik eta auzi politikoak herri borondatearen ordezkari legitimoen bidez besterik ezin direla konpondu.
- Ekintza terroristen bi eten partzial polemikoren ondoren (hautatutako kargu politikoen kontra eta Katalunian), ETAK 2006ko martxoan iragarri zuen su eten iraunkorra. Su eten horrek PPren eta PSOEn terrorismoaren kontrako adostasun hauskorra zartatu zuen, PSE-PSOE eta Batasuna hizketan ari zirela (gero EAJ ere batuko zen el-karrizketa horietara) eta Gobernuak eta ETAK Genevan eta Oslon bilerak egin zituztela jakin zenean. 2006ko abenduaren 30ean, Barajaseko aireportuan bonba furgoneta bat eztandarazi zuen erakunde terroristak eta Ekuadorreko bi herritar hil ziren ekintza horretan. Su etenaren amaiera izan zen hori. Hala ere, sei hilabete igaro ziren ETAK berriro armak hartzen zituela adierazi zuen arte. Erabaki horren aurrean, Gobernuak erakunde terroristaren eta haren ingurune politikoaren kontrako borroka poliziala indartzea erabaki zuen.
- Talde terroristaren azken hilketen artean daude Isaias Carrasco Arrasateko udaleko PSEko zinegotzi ohiarena (2008) eta Eduardo Puelles terrorismoaren kontrako borrokan lan egiten zuen Polizia inspektorearena (Arrigorriaga, 2009).
- ETA oso ahul zegoen bai ikuspegi operatibotik eta bai finantza ikuspegitik. Hala, 2010eko irailean, «ekintza armatu erasotzaileak etengo» zituela iragarri zuen. Bitartean, aurreko su etenetan bezala, kale borroka ugaritu egin zen eta estortsioak ere jarraitu egin zuen. Etete hori aurreko su etenez bestelako koiuntura batean gertatu zen: ez zen negoziazio prozesurik eta Espainiako gobernua eta Eusko Jaurlari-

tzak, biktimen begiraden zaintzapean, presio polizialari eusteko erabaki tinkoa hartua zuten.

- Ezer abertzale deitutakoaren sektore esanguratsu batek indarkeriaz aldentzea ekarriko duen aldaketa estrategiko baten aldeko apustua egin zuen orduan, erakundeetan presentzia bermatu nahian. Helburu horrekin sortu zen Sortu lehenengo (2011) eta EH Bildu hauteskunde koalizioa ondoren. Azken koalizio horretan sartu ziren Bildu, Sortu, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba.
- 2011ko udazkenean, Aieteko Bake Konferentziaren ondoren, ETAk alde bakarreko eta behin betiko su etena iragarri zuen, eta, sei urte geroago, armak uzteko prozesu eztabaidatsu bat egin zuen. Baina ez zuen iragarri deseginen zela.
- 2013an, Gesto por la Paz desegin egin zen, indarkeriaren amaiera lortu zelako.
- 2017ko udaberrian, ETAk armak eman zizkien gizarte zibileko 172 kideri, Iparraldean. Erakunde terroristak komunikatu batean zehaztu zuen zein tokitan utziko zituen bere armak.
- 2018ko maiatzaren hasieran, ETAk desegin zela iragarri zuen.

III.1.2. *Biktimizazio kasuak dokumentatzea*

Fase honetan, urrats hauek egitea proposatzen dugu:

- A) Landuko ditugun biktimizazio prozesuak zehaztea. Kontuan hartu behar diren irizpide batzuk:
 - i) Kopuruak neurrikoa izan behar du. Hilketa, bahiketa, jazarpen indarkeria eta abarretan antzeko kasu bat baino gehiago baldin badaude, gutxi batzuk aukeratu dira, adibide gisa, analisia egiteko.
 - ii) Komeni da aldi desberdinetako kasuak bilatzea, denboran zehar aldaketarik egon den aztertzeke. Metodologia probatzeko aukeratu dugun erakundeetako batean gertatu den bezala, kasu bakarra aztertu nahi bada, orduan behar bezala azaldu beharko ditugu hautaketa horren arrazoiak eta metodologia ere doitu egin beharko dugu.
- B) Gertaerak ahalik eta modurik objektiboenean deskribatu behar dira: zer gertatu zen? (noiz, non, zein izan ziren aktoreak, gertakarien segida, etab.)
- C) Erakundearen erreakzioaren (edo erreakzio ezaren) analisia.
 - l) Zer egin zen eta zer ez zen egin:
 - Hurbileko biktimak direnean, haienganako tratua eta aitortpena (zer egin zen, noiz, non, nola). Nola sentitu ziren biktimak? (aitortuta, ezezagun, onetsita, integratuta, babestuta, polarizatuta, baztertuta, etab.)
 - Jarrera hartzeak edo adierazpen publikoak. Iritzi publikoaren edo gertuko eragileen erreakzio posibleak.

- Herritarren mobilizazioetan parte hartzea (erakundeek antolatutakoak edo banakakoak).
 - Erakundearen barnean egindako lana. Erakundeekin egin dugun testaketan, sarritan azaltzen dira erakundeko pertsona jakinek erantzunak eman zituztela, baina ezin dira erakundearen erantzuntzat hartu. Komeni da horiek kontuan hartzea, dagokien testuinguruan kokatzea eta erakundearen erantzunarekin alderatzea.
 - Zer egin zitekeen baina ez zen egin? Egin gabe gelditu ziren gauzak lekukoek esandakoak izan daitezke, baina baita proiektua aurrera eramaten ari den taldeko kideen hautematean araberakoak ere.
- ii) Nork eta nola erabaki zuen zer egin behar zen eta zer ez zen egin behar? Nola baloratu zituzten erabaki horiek erakundeko pertsonak?
- Zein eztabaida egon ziren?
 - Nork hartu zituen erabakiak eta zein argudio zuzeneko edo inplizituan oinarrituta. Argudio horietako batzuk aipatu ditugu jarraian, memorien proiektua egin duten erakundeetan azaldu direnak: enpatia eta haserrea bidegabekeriak eragindako sufrimenduaren aurrean; beldurra sozializatzea; ideologiaren eraginak; erakundearen beraren neutraltasuna, despolitizazioa babestea, desadostasunak sortuko dituzten gai politikoetatik kanpo gelditzeko; erakundearen barruan gertatzen denaren gaineko kontrola galdu nahi ez izatea, etab.
 - Nola sentitu ziren erakundeko kideak erakundeak berak biktimizazio egoerei emandako erantzunen aurrean. Biktimen kasuan eta biktima izan ez diren erakundeko kideen kasuan, nola sentitu ziren galdetuta ikusiko dugu pertsona bakoitzak modu batera bizi izan zituela gertakari horiek. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea, bizi izandako esperientzien inguruko ikaskuntzak ateratzeko. Oro har, konfiantza giroa, izaera partekatua, erantzukizun partekatua eta abar eraikitzearekin du zerikusia horrek guztiak.

Erakunde bakoitzeko talde dinamizatzaileak barne dokumentazioa erabili beharko du eta, batez ere, gertakari horiek bizi izan zituzten pertsonen lekukotza entzun: biktimak (oso garrantzitsua, ahal den neurrian), lankideak, une hartan arduraren bat zuten pertsonak, etab. Pertsona horiei, aldezturik adostuta, elkarrizketak egin diezazkiekegu eta ondoren dokumentatu, prozesua behar bezala jasota gera dadin. Orain arte egin diren memoria proiektuetan ikusi den bezala, kontuan hartu behar da kasu batzuetan biktimekiko lehenengo kontaktuak ez direla errazak, batez ere biktimek sentitu badute erakundeak ez dituela behar bezala tratatu. Horrelakoetan, beharbada, komeni da bitartekari lanak egin ditzakeen pertsonaren batengana jotzea. Hala ere, esperientziek erakusten digute elkarrizketa prozesua proiektuaren alderdi aberasgarrietako bat izaten dela, bai norberarentzat eta bai talderako: aukera ematen du erakundetik urrun denbora daramaten pertsonengana hurbiltzeko, gatazka egoeren bizipenean galdu ziren harremanak berreskuratzeko, edo, biktimak baldin badira, iraganean egin

ez zitzaien aitortpena egiteko. Elkarreragin horren onurak bai elkarrizketa egiten duten pertsonengana eta bai elkarrizketatuak izan direnengana iristen dira, azken horiek sentitzen baitute erakundeak bere baitan hartzen eta entzuten dituela. Gogoratu behar dugu biktima askoren sufrimenduak gauza bakarra eskatzen duela: beren historia kontatu ahal izatea eta norbaitek entzutea. Erakundearen garai historiko desberdinetan erantzukizunen bat izan duten pertsonen dagokienez, banakako elkarrizketak egin daitezke edo talde elkarrizketak —kasu batzuetan hala egin da—, banakako lekukotzak osatzeko eta alderatzeko, beti ere tartean dauden informatzaileek ontzat emanez gero. Taldeko elkarrizketen abantaila da pertsona batzuek kontaktatzen dituzten bizipenek beste batzuei gogoratzen laguntzen diela. Iritzietan desadostasunik egonez gero, eztabaidak, begirunez eta modu eraikitzailean egiten bada, laguntzen du jarrera aniztasuna agerian uzten eta, horren ondorioz, egoera horiek berezkoa duten zailtasuna ulertzen.

Lantaldeak iturri dokumentalak eta ahozkoak berrikusteko lana banatu beharko du. Iturri dokumentalen artean, taldeak hemeroteca erabil dezake, erreferentzia bibliografikoak (besteak beste, txosten honen amaieran jaso ditugunak), erakundeko hainbat gobernu organotako aktak, erakundearen adierazpen publikoak jasotzen dituzten dokumentuak, gaiarekin lotutako erakunde proiektuak, etab. Kontua ez da informazio mordoa metatzea, baizik eta nahikoa informazio biltzea sistematizatu eta erakundearen zuzeneko eragina izan zuten edo ondorio bereziak izan zituzten biktimizazio kasuak identifikatzeko eta azaltzeko eta, ebidentzia enpirikoak erabiliz, erakundearen erreazioen eta erreazio horrek denboran izan duen bilakaeraren inguruko mapa bat eraikitze.

Egoeren arabera, elkarrizketa bakoitza pertsona bakarrak edo taldeko bi kidek egin dezakete; aurrera eraman ditugun memoria prozesuek erakutsi dute garrantzitsua dela malgutasunez jokatzeko. Egokiena izango litzateke elkarrizketak grabatu ahal izatea, baina grabagailua eragozpen gaindiezina bihurtzen bada informatzailea elkarrizketa egiteko prest egoteko edo elkarrizketa zintzotasun eta konfiantza giroan egiteko, orduan grabaketari uko egingo diogu eta oharrak jasoko ditugu. Horrela gertatu da bereziki dramatikoak eta hunkigarriak izan diren elkarrizketetan. Garrantzitsua da egiaztatzea grabagailua grabatzen ari dela, bateriek nahikoa karga dutela eta ordeko bateriak eskura ditugula. Elkarrizketak egiten dituztenek, grabaketak modu anonimoan jartzeaz gainera (ikus printzipio etikoen inguruko koadroa) eta pertsonari ez identifikatzeko gako bat esleitzeaz gainera, fitxa bat prestatu beharko dute, ahozko lekukotza bakoitzaren elementu garrantzitsuenak jasotzeko, proiektua arinago garatu dadin. Nolanahi ere, horretarako ez da beharrezkoa hitzez hitzeko transkripzioak egitea. Fitxa da lantaldearen barruan partekatzeko eta erabiltzeko materialik errazena. Nolanahi ere, fitxa horretan lekukotzaren oinarriko ardatzak agerian uzteko hitzez hitzeko aipu batzuk ere erantsi beharko dira. Fitxa guztiek, gainera, erreferentzia puntu komunak izango dituzte, taldean adostutakoak: protagonistak, testuingurua, erakundearen erantzunak, etab. Informazio dokumentalak eduki hori osatzen eta ñabardurak egiten laguntzen du, iturriak, inolako loturarik gabe, gainjartzea saihestuz. Taldeak alde aurreko bileretakoren bat erabili beharko

du fitxak diseinatzeko eta fitxa horiek, informazioa biltzeko fasea amaitutakoan, taldean aztertzeko jarraituko duen metodologia argitzeko.

Ikerketaren printzipio etikoek garrantzi handia dutela agerikoa da. Memoria prozesuak abian jarri aurretik egin genituen prestakuntza saioetan, garrantzi berezia eman genien baimen informatuari, konfidentziasunari eta anonimotasunari. Aurrerago, lantalde batzuk oso kezkatuta azaldu ziren biktimei printzipio horiek beteko zituztela ziurtatzeko dokumenturen bat behar zutelako. Horregatik, metodologia gidak bi dokumentu horien eredu bana proposatzen du: pertsona ikertzailearen konfidentziasun konpromisoaren eredu bat eta pertsona informatzailearen baimen informatuaren beste bat. Gainera, taldeek kontu handiz zaindu dute informazioaren konfidentziasuna, bai grabaketaren ondoren lekukotzak autentifikatzeari eta lekukotza horiek txostenean sartzeari dagokionez, eta bai behin eta berriz azpimarratu dutenean prozesu honen emaitza erakunde barneko txosten bat dela eta kontu handiz sozializatu behar dela erakundearen barruan eta inola ere ez dela erabili behar hasieran zituen helburuez bestelakoetarako.

Gidak elkarrizketetan biktimei eta erakundeko pertsona esanguratsuei egin diezazkiekegun galdera gakoetako batzuk ere jasotzen ditu. Baina ez dira galdesorta itxiak. Aitzitik, eta horrela gertatu da aurrera eraman ditugun proiektuetan, galderak elkarrizketatutako subjektuen berezitasunetara eta aztergai dugun erakundearen egoeretara egokitu beharko ditugu. Komeni da taldeak elkarrekin definitzea elkarrizketen oinarritzko protokoloa; parte hartzaile guztiek ideiak emateko aukera izango dute horrela eta ulertuko dute zein informazio jaso behar den, zein alderdi aztertu nahi diren, zein den galderak egiteko modurik onena, etab. Gainera, protokolo bat elkarrekin diseinatzea taldean kohesioa eta konfiantza giroa sortzen eta proiektua bere egiten laguntzen duen jardueretako bat da. Nahiz eta, adierazi dugun bezala, protokoloa ez dugun, ziur aski, zehatz-mehatz erabiliko eta kasu bakoitzera egokituko dugu, taldeki-dei laguntzen die elkarrizketa nola egin daitekeen jakiten. Era berean, horrek ahalbidetzen du elkarrizketa desberdinetan jaso den informazioa antzekoa izatea.

Kontuan hartu behar da biktimizazio nagusien kontakizuna txostenaren lehenengo atala izango dela eta horretan oinarrituta egingo dugula, ondoren, egoera horren analisia eta balioespena.

AHOZKO ITURRIAK TRATATZEKO PRINTZPIO ETIKOAK

Ahozko lekukotzak egoki tratatzeak eskatzen du kontu handiz aritzea lantaldeko kideek informatzaileekiko duten erantzukizun etikoari dagokionez. Erantzukizun hori hiru elementu gakotan islatzen da: **baimen informatua, konfidentzialtasuna eta anonimotasuna**.

Informatzaileen autonomia errespetatu dadin, **baimenak informatua** izan behar du (lehenengo harremanetatik bertatik bultzatu behar da hori). Parte hartzaile potentzialek informazioa jaso behar dute proiektuaren helburuen inguruan, eskatzen zaien parte hartze motaren eta haren irismenaren inguruan, eta emaitzen erabilera posibleen inguruan. Baimena eskatu behar da elkarrizketa grabatzeko eta bertako informazioa erabiltzeko. Are gehiago, proiektuan parte hartzea edozein momentutan bertan behera uzteko aukera bermatu behar zaie, baita transkribatutako elkarrizketen edukia berrikusteko eta egiaztatzeko aukera ere.

Konfidentzialtasuna pribatutasun kontzeptuarekin lotzen da. Ez da parte hartzaileak identifikatzeko moduko informaziorik zabaldu behar eta parte hartzailearen nortasuna babestu behar da, **anonimotasuna** ziurtatuko duten prozesuen bidez. Horretarako, informazioa modu anonimoan jaso behar da, eta erregistratu eta gordetzerakoan, ez diegu kanpoko pertsonari aukera eman behar informazio horretan aipatzen diren gizabanakoak eta erakundeak ezagutzeko (esate baterako, izen-abizenak kenduko ditugu eta informatzailea kokatzeko ezaugarriak bakarrik utziko ditugu). Anonimotasuna konfidentzialtasuna errespetatzea ahalbidetzen duen bitarteko bat da, baina ez da erabateko bermea. Proiektuaren garapenean dilemak planteatzen badira, lantaldeari gomendatzen diogu informatzaileei baimena eskatzea informazioa zabaltzeko eta haiekin eztabaidatzea alde aurretik hartutako konfidentzialtasun konpromisoa haustea beste biderik ez ote dagoen. Nolanahi ere, garrantzitsua da aurreikustea horrelako proiektu batean parte hartzen duten erakundeak edo pertsonak identifikatzea erraza dela, nahiz eta ezizenak erabili eta identifikatzeko beste datu batzuk aldatu.

Proiektu honetarako lortu den informazioa ez da zabaldu behar eta ez da erabili behar proiektutik kanpo. Horrek esan nahi du ezin dela beste helburu edo proiektu batzuetarako erabili, alde aurretik eztabaidatu eta baimena lortu gabe. Era berean, saihestu behar da informazioa erakundearen zabalteaz, dagokion testuingurutik kanpo.

Proiektua amaitutakoan, parte hartzaileek elkarrizketen audio fitxategien kopiak suntsitzeko konpromisoa hartzen dute. Hori egin baino lehen, audio horien kopia bat emango diote erakundearen dokumentazio hori zaintzeaz arduratuko den pertsonari edo sailari.

IKERTZAILEAREN KONFIDENTZIALTASUN KONPROMISOA

..... sinatzaileak, zenbakidun NAN duenak, etan bizi denak, Erakunde Memoriaren Proiektua garatzen duen lantaldean parte hartzen du eta dokumentu hau sinatuz adierazten du bertan zehazten diren konpromisoak hartzen dituela, modu formalean eta osorik:

LEHENENGOA. Sinatzaileak, aipatutako proiektuaren garapenean, hainbat elkarrizketa egin ditu edo aztertutako gaiarekin lotuta, pertsona jakin batzuei egindako elkarrizketen grabaketak edo transkripzioak jaso ditu, eta konpromisoa hartzen du grabazio eta transkripzio horiek guztiz isilpean gordetzeko, proiektu honetarako eskuratutako informazioa ez zabaltzeko, eta informazio hori proiektuaz kanpo edo erakunde bertan testuingurutik kanpo ez erabiltzeko. Horrek esan nahi du informazioa ezin izango dela beste helburu edo proiektu batzuetarako erabili, aztergai den erakundeak alde aurretik eztabaidatu gabe eta haren berariazko baimenik gabe.

BIGARRENA. Sinatzaileak ulertzen du konpromiso honen helburua dela elkarrizketatuek emandako datuak, komentarioak, iritzia eta oharrak erabateko konfidentziasunean gordetako direla bermatzea, baita elkarrizketatuen banakako eta gizarte egoerak ere. Sinatzaileak adierazten du berme horrekin guztiz ados dagoela, horixe izan baita, gainera, datuok eskuratzea ahalbidetu duen konfiantzaren oinarria. Horregatik, helburu hori lortzeko behar den kontu eta arreta guztia jarriko du.

HIRUGARRENA. Proiektua amaitutakoan, sinatzaileak elkarrizketen audio fitxategien kopiak suntsitzeko konpromisoa hartzen du. Aldez aurretik, kopia bat emango zaio aztergai izan den erakundeari, berak zaindu dezan.

.....n, 2019koren(e)an.

INFORMATZAILEAREN BAIMEN INFORMATUA

Dokumentu honen bidez, nik, jaun-
andreak, hirian bizi naizenak eta
zenbakidun NANA duenak onartzen dut elkarrizketa batean parte hartzeko gonbita,
..... erakundearen indarkeriaren eta adiskidetzearen inguruan lantzen
ari diren erakundearen memoria proiektuaren barruan. Ikertzaileek jakinarazi didate elkar-
rizketaren helburua dela, indarkeriari dagokionez, neure esperientzia pertsonalaren eta
erakundeak egoera hartan izan zuen erreakzioaren lekukotza jasotzea.

Adierazten dut honakoak ulertu ditudala:

- Edozein unetan erabateko askatasuna dut proiektuan parte hartzea eta, bereziki, elkarriz-
keta eteteko.
- Elkarrizketak grabatu egingo dira eta grabaketa orijinalak eta transkripzioak gorde egingo
dira. Inork ez du horietarako sarbiderik izango, ikertzaileek eta gainerako lantaldeak izan
ezik.
- Elkarrizketen edukia konfidentziala izango da. Elkarrizketa horien azterketa proiektua egi-
ten ari den erakundearen ebaluazio kritikorako besterik ez da erabiliko.
- Inoiz ez naute identifikatuko eta nire nortasuna anonimotasunean eta konfidentziasunean
gordeko da beti. Ikerketako datuen analisisan eta horien ondorengo txostenean nire izenaren
ordez kode bat azalduko da.
- Ikerketa honetan parte hartzeak ez dakar inolako kosturik niretzat.
- Ikerketa honetan parte hartzeak ez dakar inolako ordainketarik niretzat.

Adeitasunez,

Parte hartzailearen izena eta sinadura:

Adostasuna lortzeko informazioa eman zuenaren izena eta sinadura

.....n, 2019koren(e)an.

ELKARRIZKETAK EGITEKO GIDOIAK. HAINBAT GALDERA GAKO


1. Biktimak

- Zer gertatu zen eta zein testuingurutan?
- Nola bizi izan zenuen sufritutako biktimizazioa?
- Zein izan ziren zure gizarte ingurunearen, auzokoen eta abarren erreakzioak?
- Zein izan diren erakundearen erreakzioak? Ba al dakizu edo ebidentziarik ba al duzu erreakzio horien arrazoen inguruan?
- Nola sentitu zinen? Nola balioesten dituzu erreakzio horiek? (Elementu positiboak eta negatiboak)
- Zure ustez, zer egin ahal izango zen eta ez zen egin, edo zer egin ahal izango zen hobeto? Zein elementu izango lirateke gakoak horretarako?
- Denboran zehar, nabaritu al duzu aldaketarik biktimek erakundearengandik jaso duten tratuan eta erakundeak indarkeriaren aurrean erakutsi duen jarreran? Zein zentzutan? Zergatik?

2. Erakundeko arduradunak/erakundearen historia ezagutzen duten pertsonak

- Erakundeko pertsonen zuzenean eragin dien edo gizarte ingurunean eragin duten biktimizazio nagusietako batzuk identifikatzea.
- Zein izan ziren erakundearen erreakzioak? Ba al dakizu edo ebidentziarik ba al duzu erreakzio horien arrazoen inguruan? Nola hartu ziren erabakiak? Erantzun horien inguruan adostasunik izan al zen, desadostasunik, tentsiorik, gatazkarik?
- Nola sentitu zinen? Nola balioesten dituzu erreakzio horiek? Zure ustez, ezin ondorio izan zituen erantzun horrek edo erantzunik ezak biktimarentzat, erakunde osoarentzat eta erakundeko pertsona batzuentzat? (Elementu positiboak eta negatiboak)
- Zure ustez, zer egin ahal izango zen eta ez zen egin, edo zer egin ahal izango zen hobeto? Zein elementu izango lirateke gakoak horretarako?
- Denboran zehar, nabaritu al duzu aldaketarik biktimek erakundearengandik jaso duten tratuan eta erakundeak indarkeriaren aurrean erakutsi duen jarreran? Zein zentzutan? Zergatik?

III.2. Erakundearen jarduna aztertzea eta balioestea



Azterketa

Azterketa behar bezala egiteko, lantaldeak hurrengo galderei erantzuten ahalegindu behar du:


- Zein dira maiztasun handienaz azaldu diren biktimizazio motak?
- Zein dira maiztasun handienaz azaldu diren erantzun motak?
- Nork hasten, proposatzen eta gauzatzen ditu?
- Erantzunak nolakoak dira, banakakoak, kolektiboak, ofizialak?
- Adostasunik ba al dago?
- Non azaltzen dira desadostasunak? Desadostasunak eta tentsioa badaude, nola kudeatzen dira egoera horiek?
- Erantzunak eta erakundearen balioak eta misioak bat al datoz?
- Desberdintasun nabarmenik ba al dago informatzaile moten artean (erakundearen duntzen ardura, adina, generoa, etab.)?

Balioespena

- **Zertarako balioetsi nahi da?** Norberaren erosotasun eremutik aterata, sentsibilitate morala areagotzeko, ikuspegi kritiko eta zorrotz batetik, gaur egungo eta etorkizuneko beste biktimizazio prozesu batzuk erantzunik gabe gera ez daitezkeen. Ez dugu ahaztu behar —horrela gogoratzen dute aurrera eraman ditugun esperientzietako batzuetan— garai hartuko akats eta tentazioetako asko ere gaur egun antzeman daitezkeela bidegabeko beste sufrimendu eta bazterketa egoera batzuk lantzen ditugunean (adibidez,, genero indarkeria, jazarpena, immigrazioa, etab.).
- **Non oinarrituko gara balioespen hori egiteko?** Biktimetan oinarrituko gara —kontzeptualizazioaren atalean definitzen ditugun bezala— eta haiei zor diegun zaintza, aitopene eta justizian. Aztertu ditugun erakundeetako irakurketa kritikoek behin eta berriro azpimarratzen dute nahitaezkoa dela konturatzea ezin dela pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen gainetik jarri ez inolako ideologiarik, ez erakundearen bideragarritasun ekonomikoari lotutako alderdirik, eta ez barne hausturaren arriskurik. Inguruneko elementuak ardatz hartu beharrean, **biktimak** (eta ez soilik erakundeak hurbilen sentitzen dituen biktimak) **erdiari jartzeak** eskatzen du argi bereiztea egoera jakin bat azaltzen lagundu dezaketen faktoreak eta egoera hori ikuspegi etikotik ulertzen edo justifikatzen lagundu dezaketen faktoreak.
- Beraz, galdera gakoa hau da: **zein izango ziren erakundearen erreakzioak biktimak erdiari jarri izan bagenitu? Zergatik?**

- **Zer ez zen ongi egin edo zer ez zen egin** aztertuko beharko dugu eta ikusi —orain arteko kasuek esaten diguten bezala— nolako «beldurrak» sortu ziren edo zein arrazoi zeuden isilik geratzeko; beldur eta arrazoi horiek agerian jarri eta «izendatu» egingo ditugu. Baina, horretaz gainera, komeni da adieraztea **zer egin zen ongi eta zergatik**: banakako bultzada eta erakundearena; lidergoa; entzuteko, parte hartzeko eta konpromisorako guneak sortzea; beste erakunde batzuekin sinergiak bilatzea isiltasuna hausteko, etab.
- **Zer egin ahal izango genuen edo zer egin ahal izango genuen beste modu batera**, proaktiboak izateko eta biktimizazio edo bir-biktimizazio prozesuei hobeto erantzuteko? Zergatik?

III.3. Etorkizuneko ikaskuntzak



Indarkeriaren erakunde memoriak berreraikitzekeo prozesua, batez ere, biktimekin justizia egiteko ekintza bat da. Baina hainbat mailatan ikaskuntzak sortzeko abiapuntua ere izan behar du: gizabanakoentzat, prozesuan parte hartu zuen taldearentzat, eta erakundeko beste organo eta kideentzat. Horregatik, komeni da prozesuaren amaieran saio batzuk eskaintzea taldearen ikaskuntzen inguruan gogoeta egiteari eta, egoeraren araber, ikaskuntza horiek baliabide eta tresna bihurtzea, sozializatzeko. Gutxienez hiru ikaskuntza maila nabarmendu ditzakegu:

1. *Biktimizazio kasu berrien aurrean erreakzionatzen ikastea*

Prozesu honen bidez, erakundeak ikas dezake nola erreakionatu beharko lukeen biktimizazio ekintza berrien aurrean, modu bidezkoan eta arduratsuan. Iraganean bizi izan ditugunak bezalako indarkeria terroristako ekintzak, ziur aski, ez dira berriz errepikatuko, baina erakundea eta erakundeko kide guztiak gizartean txertatuta daude eta bertan, egunero-egunero, biktimizazio ekintza ugari gertatzen dira. Ekintza horiek gure erantzuna merezi dute, bai erakundearen barruan eta bai gizartean (adibidez, genero indarkeria, jazarpena, arrazakeria, xenofobia, etab.). Horrela, indarkeriako iraganaren memoriatik orainaldiko biktimizazio agerraldiei aurre egiteko ikaskuntzak atera ditzakegu, eta, ahal den heinean, egoera horiek errepikatzea saihestu.

Lehenengo urratsa izango da izango da orain arte egindako azterketa berrikustea eta izan ditugun erreakzioen azpian egon daitezkeen egiturazko logikak agerian uztea, horiek erraztu edo eragotzi baitezakete egoki jotzea. Orain arte egin ditugun memoria prozesuek azpimarratzen dute, banakako eraginez gainera (erabakigarriak izan daitez-

keenak), ezinbestekoa dela zehaztea erakundearen zein kulturak eta funtzionatzeko moduk laguntzen edo eragozten duten helburu hauek betetzea:

- **Biktimizazio prozesuak al bait lehen identifikatzea**, pertsona eta gizarte sektore kalteberenak erdian jartzeko apustu esplizitua eginez eta gizartearen erreakzioaren zain gelditu gabe. Esperientzia guztiek irmoki azpimarratzen dute erreferente izan behar dela eta ez, soilik, gizartearen isla hutsa.
- **Erakundeak biktimei harrera egitea eta justizia egitea**, erakundearen buru da-goenaren sentsibilitatea edozein izanik ere. Horretarako lagungarriak dira entzuteko eta lagun egiteko espazioak sortzea eta formalizatzea, jarduketa protokoloak definitzea, biktimizazio kontakizunak erakundearen bertan *ad intra* sozializatzea, biktimei egiten zaien aitortza agerian jartzea, etab.
- **Horrelakorik berriro gerta ez dadin**, behar diren gauzak aldatzeko konpromisoa hartu behar da, **erakunde proiektu argi eta koherente baten laguntzaz**.

Erreakzioen azpian dauden egiturazko logikak identifikatu ondoren, galdera honi erantzuteko prest egongo gara: zer aldatu beharko genuke gure erakundearen eta erakundeak gizarte ingurunearekin dituen harremanetan, biktimizazio prozesu berrien aurrean gure sentsibilitate morala zorrozteko eta, horrela, prozesu horiek identifikatzen eta lantzen proaktiboak izateko? Horrek esan nahi du neurri edo ekimen zehatz berriak erakunde errealtatera eramatea eta egokitzea. Eta, azkenik, aurreko puntuaren erantzunak erakunde errealtatera eraman eta egokitu daitezke neurri edo ekimen zehatzen bidez, horien artean, jarduera protokolo bat egitea, erakundeko kideek adostu eta ezagutuko dutena.

2. Iraganari buruz ikastea

Indarkeriari lotutako erakunde memoriak berreraikitze prozesuak Euskal Herrian azken berrogeita hamar urteetan bizi izan dugun gatazka politikoaren eta gatazka horretan indarkerian izan duen eraginaren inguruko jakite eguneratua sortu beharko luke: indarkeriaren erabilera instrumentala, banakako eta gizarteko ondorioak, gizarte zibila-ren erantzuna eta denboran izan duen eraldaketa. Jakintza horrek abantaila bat du: erakundearentzat *esanguratsua* da, bere esperientziarekin lotuta baitago, eta *sentikorra*, biktimekiko konpromiso etikoan oinarritzen baita. Horregatik, aukera garrantzitsua da erakundeak azter dezan nola transmititu diezazkiekeen ikaskuntza horiek ikasleei (hez-kuntza erakundeak direnean), dela curriculumaren barruko jardueren bidez (adibidez, historiako irakasgaietan) dela curriculumaz kanpoko jardueren bidez. Adibidez, erakunde memoriaren inguruko ikaskuntza prozesu baten amaieran, pentsa dezakegu memoria-rako espazio bat (mural bat, eskultura bat, etab.) elkarrekin sortzea. Unitate didaktiko bat ere garatu daiteke edo jarduera puntualagoak prestatu, historiako irakasleek edo beste irakasgai batzuetakoek erabiltzeko gai horiek ikasleei irakasterakoan, ikasleek lotura egin dezaten indarkeriako iraganaren, norberaren ingurunearen eta komunitate horretako esperientziaren artean.

3. Erakundean gai sentikorrak lantzen ikastea

Memoria berreraikitzeko prozesuan bizi izandako esperientzia horretatik, parte hartzaileek ikaskuntza garrantzitsuak atera ditzakete erakundean gai sentikorrak edo adostasunik gabekoak lantzeak dakartzan erronken eta aukeren inguruan, gai horiek zailak izanik ere, funtsezkoak baitira komunitate integratuak eta osasuntsuak eraikitzeko. Hala, memoria zailak elkarrizketan oinarrituta berreraikitzeko esperientziatik hainbat ikaskuntza atera daitezke erakundean beste gai gatazkatsu batzuk lantzeko. Hainbat gairen inguruko ikaskuntzak izan daitezke:

- Konfiantza giroa eraikitzen laguntzen duten baldintzak, gero gai sentikorrak edo desadostasun agerikoak lantzeko.
- Elkarrizketa, entzute eta ikuspegi aniztasunaren kudeaketa prozesuen ezaugarriak.
- Gertatutakoaren inguruan egia bilatzea eta,aldi berean, gertatutako horren esanahiaren, motibazioen eta pertsonen bizipenen interpretazio askotarikoak aitortzea.

III.4. Txostena idaztea



Haxe izan daiteke txostenaren formatua:

- **Luzera:** 20-30 orri ingurukoa. A4 tamaina, 1,5eko lerro artean, New Times Roman 12 letra mota.
- **Egitura:**

Sarrera: helburua, lana egiteko prozesua, ondorio nagusiak.

1. Biktimizazio nagusien kontakizuna.
2. Erakundeak hartu zituen jarreren analisia.
 - 2.1. Zein jarrera hartu ziren edo ez ziren hartu
 - 2.2. Zergatik?
 - 2.3. Balioespen etikoa
3. Biktimizazio modu berriak lantzeko ikaskuntzak
 - 3.1. Zer ikasi dugu?
 - 3.2. Zer hobetu behar dugu?

ERANSKINAK: Dokumentuak (egoki irudituz gero)

Bibliografiako iradokizun batzuk

AROVITE: Euskadin gertatutako indarkeria terroristaren inguruko fitxategia, online (<http://www.arovite.com/es/>). Hainbat monografia eta koaderno daude bertan, interesgarriak izan daitezkeenak esparru kontzeptuala eraikitzeke eta aztertuko diren etapak dagokien tesuinguruan kokatzeko. Jarraian, esanguratsuenak izan daitezkeenetako batzuk aipatuko ditugu, proiektuaren ikuspegia kontuan hartuta:

- Bilbao, Galo (2007). *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 13]
- (2009). *Jano en medio del terror. La inquietante figura del victimario víctima*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 17]
- Etxeberria, Xabier (2005). *Sobre la tolerancia y la neutralidad del educador ante la violencia terrorista*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 7]
- (2009). *Identidad como memoria narrada y víctimas del terrorismo*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 20]
- (2009). *La educación para la paz vertebrada por las víctimas*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 21]
- Sáez de la Fuente, Izaskun (2011), *La opinión pública vasca ante la violencia de ETA*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 23]
- Sáez de la Fuente, Izaskun (2017), *Misivas del terror. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*, Madril: Marcial Pons.
- Sáez de la Fuente, Izaskun eta Bilbao, Galo (2018), «La problematicidad de la asunción ética de la perspectiva de las víctimas», honako lanean: Gema Varona (Ed.), *Victimología: en busca de un enfoque integrador para repensar la intervención con víctimas*, Madril: Aranzadi.
- Santos, Teo (2009). *El miedo social en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz [Escuela de Paz bilduma, 16]

Biktimen lekukotzan sakondu nahi izanez gero, indarkeria terroristak eragindako Giza Eskubideen Urraketen Behatokia jo dezakegu (<http://zoomrights.com/>, biktimen monografietara —esate baterako, Cristina Cuesta (2000). *Contra el olvido. Testimonios de las víctimas del terrorismo*. Madril: Temas de hoy— edo Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak eta Etika Aplikatuko Zentroak talde zehatzen inguruan prestatutako txostenetara (Eusko Jaurlaritzak argitaratuak)._



Deusto

Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea